

# OJOS DEL SALADO

Iñaki Bengoechea

**A**RGENTINARA mendia egitera goazela esatean, bururatzen zaigun lehenengo gauza Aconcagua mendia da. Aconcagua benetan da mendi enblematikoa, Hego Amerikako garaiena, jende askok igo duena eta istorio bitxiz josita dagoena; horrez gain, Euskal Herriko makina bat mendizalek


bisitatzen du urtero, baita mundu osoko makina bat mendizalek ere. Gauza asko esan dira mendi honi buruz; jende gehiegi joaten dela, Beheko Kanpamendua oso zikina dagoela, ...

Gure asmoa aipatu jendetatik urruntzea zenez, Argentinako iparraldekoa aukeratu genuen, Catamarcako probintzia hain zuzen, non jakin dugunaren arabera, ez dago ez jenderik ezta zaborrik ere, baina bai bi gailur oso berezi, Aconcaguaren antzeko garaiera dutenak. Beraz, motxila materialez beteta, baina batez ere ilusioz gainezka, herrialde eder hartara abiatu ginen, Incaguasi eta Ojos del Salado igotzeko irrikitan.

Abiapuntua Argentinako hiriburua izan genuen, alegia, Buenos Aires; bertan, Catamarca hiriraino eramán gintuen hegazkina hartu genuen. Catamarcan janaria erosi genuen, izan ere, Euskaditik material teknikoa besterik ez genuen eramán. Ez genuen inolako arazorik izan mendira joaten garen guztietan jaten dugun janari-mota aurkitzeko; supermerkatu onak daude eta bertan eskuratu genuen behar genuen guztia. Arratsalde osoa eman genuen janaria erosten, erosketak paketatzen, eta amaitu ondoren, hiri zoragarri hura ezagutzea erabaki genuen.

Catamarcan egonda, aipatu bi mendietara iristeko errepidea hartu behar da. Horretan ere ez genuen inolako arazorik izan, autobus-zerbitzu bikaina baitute; bost orduko bidaiara egin ondoren, Fiambala herrira iritsi ginen (1500 metrora). Bertan Jonson Reynoso eta Ruth-ekin (bere alaba) elkartu ginen; beraiek dira Beheko Kanpamendu desberdinetara iristen lagundu behar zigutenak.

Fiambalan azkeneko erosketak egin genituen; fruta pixka bat, eta batez ere ura. Ur asko eramán behar genuen Incaguasi mendira, mendi honen Beheko Kanpamenduan ez baitago errekatxorik, eta urtaro honetan ez dago urtzeko elurrik.




Beraz, gauzak ondo prestatu ondoren, Jonson Reynosok furgoneta bat ekarri zuen eta bertan sartu genituen gure gauza guztiak; San Francisco pasabiderantz iristen den errepidea hartu eta Txile zeharkatu ondoren, Las Grutas (4000 metrora) mugara iritsi ginen. Chascuil bailara zeharkatu eta orduan geure burua benetan isolaturik ikusi genuen, lurralde berri eta garbi horretan murgildurik. Distantziak ikaragarri luzeak dira; begirada ere erotu egiten da, ezinezkoa zaio inguruan duen guztiaz ohartzea. Egia esan, lurralde haren handitasuna ulertzeko eta sentitzeko bertan egotea ezinbestekoa da.

## Lurraren handitasuna

Las Grutasen, militarrekin bete beharreko betiko formalismoe-kin topo egin genuen; ez da beharrezkoa baimenik eskatzea, baina beti da komenigarria tabakoa eta haragi pixka bat eramatea, afari on bat elkarrekin partekatzeko. Lehenengo gaua militarren instalazioetan pasa genuen.

Biharamunean altuerak eragiten duen gaitzaren lehenengo sintomak somatu genituen; ondoeza eta buruko mina. Izan ere,



**A la izquierda. Arriba. Valle de Chaschuil, dirección puesto fronterizo Las Grutas Abajo. Puesto fronterizo Las Grutas A la derecha. Arriba. Aclimatación en Las Grutas Abajo. Marcha de aproximación, primer día llegando a Aguas Calientes**

Fiambalatik (1500 metrora) ibilgailu motoredun batean Las Grutas-eraino (4000 metrora) igotzea ez da gorputza girotzeko modurik egokiena. Militarrei agur esan eta 5 km-ra dagoen kanpamendu txiki eta zahar batean geratu ginen; bertan gorputzaren girotzea behar bezala burutu ahal izan genuen. Gure begien aurrean, izugarria eta bakartia, Incaguasi mendia.

Goizegi esnatu gabe, eta gauzak patxara handiz hartuta, eguerdi aldera lur argentinarretan egiten genuen lehenengo irteerari ekin genion. Gure asmoa, gutxi gorabehera 4500 metrora iristea zen; hori lortzeko, Morocho izeneko mendiska txiki bat aukeratu genuen. Hasieran, lurraldea laua zen; zenbait aintzira txiki pasa eta gure kanpamendua inguratzen zuen errekatxo baten meandroa pasa ondoren, pixkanaka-pixkanaka eta ibilian, igotzen ari ginen, eta gutxi gorabehera 3 ordu eta erdi pasa ondoren, Morocho mendiskaren gailurrera iritsi ginen (4450 metro). Aipatu mendiska Incaguasi mendiaren ekialdean kokatzen da, eta bertatik, Incaguasira egin nahi genuen igoeraren zati bat azter daiteke. Arratsaldean gure kanpamendura itzuli ginen.

Hurrengo egunean, gauzak prest genituen Incaguasi mendiko Beheko Kanpamendura joateko; bertara iristean, gorputza hobeto

girotzeaz gain, mendirako ekipoa prestatzen hasi ginen. Incaguasik dituen ezaugarriak direla eta, Bkra lurrotako ibilgailuetan iristeko aukera dago, eta horixe da, hain zuzen, guk egin genuena. Ohar garrantzitsu bat kontuan hartu behar da: mendi honetan ez dago ibairik, ezta aintzirarik ere, eta BK kokatzeko aukeratu genuen altuera kontuan hartuta (alegia, 4.700. metro), ez dago izoztegirik edo penitenterik ere; beraz, bertan pasako diren egunen arabera, ura nahikoa eraman behar da, bai janaria prestatzeko bai edateko ere.

Hurrengo egunetan zehar, janaria eta arropa 5150 metrora igo genuen, eta ondoren, 5650 metrora: bertan jarri genuen gure K1. K1 prestatu eta ekipatu ondoren, Bkra jaitsi ginen lo egitera; biharamunean, presarik gabe eta gainera arinago (pisu gutxiago baikeun), 5650 metrora igo ginen. Bertatik saiatu nahi genuen hurrengo egunean Incaguasiren gailurrera (6650 metro) igotzen; betiere eguraldia lagun izanda, noski. Ez genuen egun gehiegi bertan egoteko, beraz, lehenengo saiakera batean gailurrera iristen ez baginen, bagenekien Incaguasi ahaztu eta Ojos del Saladora joan beharko ginatkeela. Eta horixe izan zen gertatu zitzaiguna; K1ean (5650 metro) pasa genuen ilunabarra benetan penagarria izan zen, elurra eta guzti bota zuen, eta ondorioz, hurrengo egunean bertan behera utzi genuen gailurrera iristeko asmoa. Hau bai zoritxarra!

Benetan geunden amorratuta. Ezin genuen gora egin, eta kanpamendua jaso eta mendi polit eta maitagarri hura igotzeko gogoia paraje hartantxe utzi behar izan genuen. Hala ere, moralez sendo geunden: bagenekien mendi bat utzi egiten genuela, baina aldi berean, bagenekien ere beste mendi zoragarri batera gindoazela, Incaguasi mendia bezain paregabea.

## Ojos del Saladorantz

Beraz, berriro ere san Francisco pasabidetik Fiambalarako errepidea hartu, hego-ekialderantz, eta El Quemadito arroilera iritsi ginen. Bertatik ekin genion Ojos del Salado mendira eramango gintuen abenturari.

Lino eta Don Manuelek in hitz egin ondoren, Bkraino gurekin etorriko ziren mandazainak, mendirantz hurbiltzen hasi ginen, baina ezusteko polita gurekin genuela: Ruth (Jonson Reynosoren alaba) gurekin zetorren, beraz, beste kide bat gehiago izango genuen espedizioan. Ruthek badu 6000 metrotik gorako mendiak igotzen nahikoa esperientzia, eta bestalde, oso ondo ezagutzen du Ojos del Saladoko Bkrainoko bidea.

Bidaiaren lehenengo egunean Quemaditotik (3500 metro) Aguas Calienteseraino (4100 metro) iritsi ginen; bertan du sorlekua ibilbide osoan barna gure alboan izan genuen ibaiak. Oso lur anitza da: hasteko arroila bat pasa genuen, ondoren bailara zabal eta garbi bat zeharkatu, eta azkenik haizpitarte bat, Aguas Calienteseraino iritsi arte. Bertan, pareta batean bibak handi bat aurkitu genuen; are gehiago, bibakean gela bat zegoen eta jangela bailizan erabili genuen. Azken finean oso leku polita eta atsegina.

Bigarren egunean gauzak erabat aldatu ziren. Jada gure aldean, gure ibilbidea jarraitzen ez zegoen ibairik, lurraldea zabaldu eta basamortu luze batean sartu ginen. Eguna nahiko ondo portatzen ari zen, tenperatura nahikoa egokia zen, eta desertuaren amaiera aldera, gainera, haize pixka bat ere izan genuen lagun. 6 ordu eta 15 minutu oinez egin ondoren, Agua de Vicuoa-ra (4800 metro) iritsi ginen. Arroka handi batean haizetik babestu ginen, eta penitente batzuen alboan bi denda jarri genituen, lo egiteko. Lokartu baino lehen espedizioaren inguruan gogoetak egin nituen: "bihar, azkenean, gure mendi amestua ikusiko dugu, kementsu nago, eta taldea ere halaxe dagoela uste dut, baita Incaguasi mendia igotzea ezinezkoa izan bazaigu ere."

Goizean, eguzkia gure gorputzetan berotzen hastean, Bkra iristeko hirugarren eta azkeneko eguna hasi genuen. 550 metroko desnibela gainditu behar genuen eta Portessueloko lepoko pasabidea (5400 metrora) pasa. Egun osoan zehar eguzkia gurekin izan bagenuen ere, tenperatura, pixkanaka-pixkanaka jaisten hasi zen.

Ez da harritzekoa, izan ere, 5000 metrotik gora geunden. Portessueloren oinetan geundela urduri jartzen hasi ginen, lepora ahalik eta azkarren iritsi nahi genuen, gure mendia ikusi ahal izateko; nolakoa izango ote da, elurrik izango al du,... makina bat galdera genituen buruan bueltaka.

Azkenean, mendi-lepoak dituen 5400 metroak egin eta gure zalantza guztiak erantzuna aurkitu zuten: gure aurrean Ojos del Salado genuen, 6866 metroko mendia. Mendi handia da: isurialde argentinarrean bi sumendi txikik inguratzen dute, baina urtaro honetan elurrez estalita daude. Ezinezkoa zitzaigun denbora luzeegian mendiari begira egotea, oraindik ere jaitsiera labur bat egin behar baikenuen Bkraino iritsi arte, 5350 metrora kokatu genuena.

Gutxi gorabehera 4 ordu behar izan genituen Bkra iristeko; arratsaldean, kanpamendua instalatu ondoren, igoera egiteko jarrai genezakeen ibilbidea aztertu genuen, baita mendi honen oinean jarri nahi genituen bi tarteko kanpamenduak kokatzeko leku egokia ere. Lino eta Don Manuel gure mandazainei agur esan genien, eta bost egun beranduago, berriro ere gure bila etortzekotan geratu ginen, hori baitzen gure ustez gailurrera iristeko eta kanpamendura buelta egiteko behar izango genuen denbora.

Orduan bai, une aproposa genuen hura, mendiaren oinetan geunden, eta espazio amaigabe baten erdian murgildurik. Gu geu bi puntu ñañar besterik ez ginen espazio izugarri horren erdian galduta. Hori da, hain zuzen, ikuskizun honen alderdirik deigarrietakoa.

## Igotzen hasi baino lehen


Gure asmoa bi kanpamendu gehiago instalatzea zen, eta hori gailurrera igotzen hasi baino lehen egin nahi genuen: bata 5460 metrora jarriko genuen, eta bestea 5800 metrora, hain zuzen elurra hasten den puntua. Aldi berean, BK utzi eta gailurretik jaitsi arte ez ginen berriro bertara itzuliko.

Gauzak horrela, biharamunean BK utzi eta k1era iristeko asmoarekin hasi ginen ibiltzen. Bi kanpamenduen artean ez zegoen desnibel handia, 150 metro besterik ez, baina bideak gora eta behera egiten zuen, etengabe, eta horrez gain, arratsalde aldean eguraldia aldatu egin zen, eta K1era iristeko elurra botatzen hasi eta haize izugarria hasi zen. Ahal izan genuen bezala dendak muntatu, afaldu eta berehala lozaketan sartu ginen, deskantsatzeko, izan ere biharamunean 5800 metrora irigo behar genituen.

Hurrengo goizean ateri zegoan; igarotako egunak ondo aztertu ondoren, ondorio batera iritsi ginen: goizeetan eguraldi ona egiten zuen eta eguerdi aldera aldatzen hasi eta arratsalderako ekaitza botatzen zuen, baita elurra ere. Beraz, goizago ateratzea erabaki genuen; janaria, gasa, materiala eta altuerarako arropa hartu eta 5800 metrora iraman genituen. Ondoren, gauzak bertan utzi, K2 instalatzeko gauzak prestatu eta K1era lo egitera jaitsiko ginen.

Ibilbidea gero eta zailagoa zen; jada ez genuen bailara zabal eta luzerik, mendi-oinean geunden eta igoerak ez ziren aurtzaren gauerdiko eztula. Horrez gain, penitenteak ere zeharkatu behar genituen. 5800 metrora iristeko 2 ordu eta 45 minutu behar izan genituen. Merkurioa °C ingurura jaitsi zen; K2 muntatzen ari ginela, ez genuen ia altuera nabaritzen, beraz, ondo girotuta geundela esan zitekeen, eta horrek poztu egin gintuen. K2 instalatu ondoren, K1era jaitsi ginen bertan lo egin eta berriro ere K2ra igotzeko, baina oraingoan askoz ere pisu gutxiagorekin.

14:00 ziren, eta berriro ere K2n geunden. Patxaran hartu genuen, ez baikenuen nekaturik egon nahi biharamunean gailurrera iristen saiatzeko. Jan ondoren, elurra urtu genuen hurrengo egunerako. Arrats behean gailurra egiteko aukeratu genuen eguneko plana zehazteko bildu ginen. Zalantzarik gabe, gailurrera iristeko zeuden 1066 metroak egitea, hasiera batean pentsatzen genuena baino zailagoa zen, elur gehiago baitzegoen eta ondorioz, igoera askoz ere geldoagoa izango baitzen. Azken erabakia, gauerdian altxa eta ohiko gauzak prestatzen hasia izan zen: gosalduta, jantzi, eta abar. Izan ere, kontuan hartu behar da, 5800 metrora egiten diren mugimenduak geldoagoak izan ohi direla, esate baterako: gosaltzeko eta prestatzeko, ordu eta erdi behar izan genituen.



Ilusioz beterik nengoen, eta goizeko ordu bitan dendatik ateratzen, hara non ikusi nuen gure buruen gainean ilbete argi eta zoragarria: orduan sinistu nuen gailurrera iritsi gintezkeela.

Jarraian, gailurrera iristeko egunaren nondik-norakoak azalduko ditut:

## Goizeko ordu bitan atera gara

K2tik, 5800 metrora dagoena, goizeko ordu bitan atera gara; gaua lasaia da, ilbetea dugu; zenbaitek kopetako linterna daramate, beste zenbaitek ez, eta guztiok batera, izarrak zaindari ditugula, mendi-leporaino eramango gaituen aldapa elurtua igotzeari ekin-



A la izquierda. Arriba. Atardecer llegando a Agua de Vicuña  
 En el centro. Porteano material y comida al CII, cerca de los 6000 m  
 Debajo. Hacia el CII, al fondo la cima de Ojos del Salado  
 A la derecha. Arriba. Vista general de la primera parte de la ascension a la cumbre de Ojos del Salado, entre el CI y CII  
 Abajo. En la cima.



zun paregabe bat ikusten dugu: Atacamako basamortu amaigabea.

Gailurrean gutxi gorabehera ordubete pasa ondoren, argazkiak atera, besarkatu, eta ikuskizun zoragarri horretaz gozatu ondoren, beherako bideari ekin behar diogu. Arazo txiki baten ondorioz, Bkraino jaitsi beharrean K2an geratu behar gara: Ruthek ez du begi batetik ikusten, eta bidea zaila denez, lagundu behar izan diogu eta jaitsiera pentsatzen genuena baino gehiago luzatu da. K2n bertan, sendaketa txiki bat egin eta begian adabaki bat jarri diogu. Quemaditora iritsi ondoren, jaitsieran bi egun eman ondoren, ezusteko txiki bat besterik izan ez dela baieztatu dugu. □



FOTOS EXPEDICIÓN

diogu. Goizeko bost eta erdietan iritsi gara, eguzkiaren lehenengo izpiek Ojos del Salado mendia hegaletan jotzen dutenean, eta termometroa, jada  $-15^{\circ}\text{C}$ -ra iritsi da. Orduan gelidaldi labur bat egitea erabaki dugu, hidratatzeko, zerbait jateko eta igoeraren azkeneko zatia ondo aztertzeko; azkeneko zatia oso gogorra da, eta amaieran arrokaz beteriko zona batera iristen gara: bertatik gailurreraino iristeko. 11:30ak dira eta 6866 metrora iritsi gara, gailurrera! Zer esango dizuet ba: eguna benetan bikaina da, haizerik gabe eta paisajeari dagokionez, liluragarria. Beherantz begiratu behar dugu zer edo zer ikusi nahi izanez gero. Isurialde argentinarra begiratzuz, guk egin dugun igoera ikus dezakegu, jada ezagutzen duguna; baina isurialde txiletarra begiratzuz, beste ikuski-

## FICHA TÉCNICA

### ASCENSION OJOS DEL SALADO - 6866 m.

- 1.- El Quemadito (3500 m) - Aguas Calientes (4100 m).  
Desnivel 600 m.  
Total 7h 30 min.
- 2.- Aguas Calientes (4100 m) - Agua de Vicuña (4800 m)  
Desnivel 700 m.  
Total 6h 15 min.
- 3.- Agua de Vicuña (4800 m) - CB (5350 m).  
Desnivel 550 m.  
Total 3h 15 min.
- 4.- CB (5350 m) - CI (5460 m).  
Desnivel 110 m.  
Total 3h 15 min.
- 5.- CI (5460 m) - CII (5800 m).  
Desnivel 340 m.  
Total 2h 45 min.
- 6.- CII (5800 m) - Ojos del Salado (6866 m).  
Desnivel 1066 m.  
Total 9h 30 min.
- ACTIVIDAD REALIZADA POR  
Felipe Uriarte, Enrique Villar, Andrés Castellón,  
Alberto Marcos, Ruth Reynoso e Iñaki Bengoechea,  
durante el mes de febrero de 1999.